

# Errenteria-Kolonia-Errenteria

**2009. Errenteria.** Gizon gazte bat atxilotua izan zen emakume bat bortxatzen saiatzeagatik. Hedabideek erasotzailea Magrebekoa zela azpimarratu zuten; biktimaren jatorria ez zuten zehaztu. Egun batzuk pasa eta gero, SOS Arrazakeriak salatu zuen hiriko magrebtarrek mehatxuak eta jazarpenak bizi zituztela. Lokutorioetatik “alde hemendik!” oihuka ibili zen talde batek emakume etorkin bat eraso omen zuen.

**2010. Diario Vasco:** “Lau errumaniarrek 14 urteko kartzela zigorra jaso dute, Irunen gazte bat bortxatzeagatik”. Titularrean ez, baina lehenengo paragrafoan esaten zuten neska jatorriz hegoamerikarra zela. Albistearen komentario gehienak xenofoboak ziren. Pentsa: zein izango zen irakurleen erreakzioa, kazetariak biktima ere etorkina zela esan balu titularrean! Eta biktimaren jatorria bakarrik aipatu balu? Eta, “Lau gizonen gazte bat bortxatzeagatik”, soilik idatzi balu?

**2015. Kolonia.** Alemaniako hiri horretan ehunka lapurreta eta sexu eraso salatu ziren Gabon zaharrean. Bertoko zein kanpoko hainbat hedabidek azpimarratu egin zuten atxilotuen artean errefuxiatu ugari zeudela. Alemaniako Gobernuak bi neurri errepresibo iragarri zituen: errefuxiatuak kanporatzeko legea gogortzea eta kalean polizia gehiago ipintzea. Berrito ere, hedabideetan eta sare sozialetan erreakzio xenofoboak nabarmendu ziren.

Komentario oso interesgarri bat irakurri nuen Interneten: “Erosotutako emakumeen nazionalitateari buruz informatu gaituzte ala denak alemaniarrek, ileoriak eta begi-urdirak direla jakintzat eman behar dugu? Badirudi batzuentzat erasotzaileen nazionalitatea oso garrantzitsua dela, baina biktimen gehiengoak errefuxiatuak izan balira, amorrurik berdina adierazi



June Fernández

KAZETARIA

@marikazetari

Brigitte Vasallok *purplewashing* (garbiketa morea) kontzeptua erabiltzen du joera hau definitzeko. Alegia, emakumeen eskubideen defentsa etorkinak kriminalizatzeko aitzakia bezala erabiltzea. Koloniako albisteei buruz idatzi zuen *Pikarako* artikuluan nabarmendu zuen sexu eraso arduradunak “gutarrak” direnean (Sanferminetan, esaterako) gizarteak indarkeria justifikatzen duela

eta asilo politika aldatzea exijituko genuke?”.

Brigitte Vasallok *purplewashing* (garbiketa morea) kontzeptua erabiltzen du joera hau definitzeko. Alegia, emakumeen eskubideen defentsa etorkinak kriminalizatzeko aitzakia bezala erabiltzea. Koloniako albisteei buruz idatzi zuen *Pikarako* artikuluan nabarmendu zuen sexu eraso arduradunak “gutarrak” direnean (Sanferminetan, esaterako) gizarteak indarkeria justifikatzen duela. Vasallok astebetetz milaka irain eta eraso jaso zituen, “moro batek bortxa zaitzala desio dizut” eta antzekoak. Errenterian gertatutakoa gogorarazi zidan: “Gure emakumeak bortxatzen datoz” argudioarekin xenofobia elikatzen duten gizonak mozorro barik geratzen dira euren gorrotoa emakumeen kontra ere (etorkinak, arrazakeriaren kontrako aktibistak...) bideratzen dutenean.

**2010. Bilbo.** Hainbat elkarte feministek bilera bat antolatu genuen indarkeria sexista eta bereziki kaleko sexu erasoak, gizon etorkinei leporatzen ari zitzaizkielako kezkatuta. Aktibista zuriok aurreiritzi horren arrazoia argi geneukan: kalean ezezagun baten jarrera edo eraso matxista identifikatu eta salatzea gutxiago kostatzen zaigula gure etxean bertan, lan esparruan edo gaztetxean bizi ditugunak baino. Eta beste arrazoi bat: gizartearentzat lasaigarria da indarkeria matxista “beste”, “kanpoko” arazo dela pentsatzea. Ordea, feminista etorkinen txanda heldu zen, eta gizon autoktonoekin bizitako egoera matxista eta arrazistak kontatu zizkigutenean aho bete hortz gelditu ginen. Esaterako, kalean norbait itxaroten egotea, bertoko gizon bat hurbildu eta txortan egiteagatik zenbat kobratzen zuen galdetzea. Horrelako indarkeriak ez dira hedabideetan agertzen. Erasotzaile horien kontra inork ez luke kanporatze agindurik eskatuko. ■